Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 386

Abenduak 1, 2020

Itziar Sistiagak sinatutako nobela berria

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Euskaraldia
4 Asun Casasola Ipuin Lehiaketa
5 Itziar Sistiaga
6-7 Bortxazko lanak
8 Kirolak: Irati Beorlegi
9 Kirolak: Bidasoa Vuelo
10 Miru Studioa
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: German Eizagirre
14 iGazte
15 Agenda

Argazkia: Estudio Gover

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

Orain dela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak aztertzeko, 1920. urteko aldizkaririk topatu ezean, 1918. urtean argitaratutako publikazioak aproposak izan daitezke. Zehazki, 1918ko abenduaren 8an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria E. Esparzak Pio Baroja idazlearen idazkera estiloaren inguruan argitaratutako artikulua hasten da. Hurrengo idatzian, hiriaren gaurkotasunarekin lotutako zenbait nobedade biltzen dira albiste labur formatuan, adibidez, udaletxearen berrikuntza lanak, hurrengo Sanmartzial festen edo alkatearekin lotutako gaien inguruan hitz egiten delarik. Jarraian, irakurleek aldizkariaren egoitzara bidalitako gutunen eskariak biltzeko atala zabaltzen da aldizkarian, irundarren eskari eta iritziei tartea emateko. Txori txikik Bidasoaz bestaldeko euskaldunei zuzendutako idatzia publikatzen du, gerraren testuinguruan animoak emateko. Ostean, Sortzez Garbiaren eta Santa Barbara elizako ospakizunen zergatia azaltzen da aldizkariko hurrengo idatzietan.

Mañuel kolaboratzaile ohikoak "Cosas que se pasan en Irun" atalean Fermín Calbetón kalearen izena eta izen bereko pertsonaren bizitzaz gogoeta egiten du. "La autonomía del Bidasoa" testuan, Bidasoa eskualdearen jatorrien inguruko gogoeta egiten da tren bidai batean izandako elkarrizketa baten bitartez. Kirol kronikan, Tolosako lasterketako emaitzen laburpenarekin batera, Irungo Txapelketa eta futbol partiduen emaitzak komentatzen dira. Horren ostean, Fermín Calbetón Ogasun ministro gisa hautatua izan delaren albistea gogorarazten da. Ostean, Txori Txikik zuzenbidea eta indarraren arteko irudizko elkarrizketa bat islatzen du bere idatzian.

"De la cuenca Elizondo" atalean, Elizondon aliatuen garaipena ospatzeko antolatutako otorduko parte-hartzaile eta bazkariko gertakariak laburbiltzen dira. "En el municipio" atalean azken udal bilkurako erabakiak bildu ostean, Satarkaren "¡Gabirai-Gaiztua!" titulua daraman olerkia irakur daiteke. Ohikoa den bezala, "El Bidasoa" aldizkariaren 171. zenbakia "Ecos de sociedad", antzokien hurrengo egunetarako programazioarekin eta berri laburren atalarekin amaitzen da, publizitate orrialdearen aurretik.

Argazkiak:
G57862: Egungo Genaro Echeandia plazaren ingurua. Erdian prentsaren salmentarako kioskoa, eskuinean antzinako merkatua eta alondegia eta ezkerrean Echeandia etxea eta Fermín Calbetón kalea.
G29198: Ibilgailuak Fermín Calbetón kalean aparkatuak, XX. mendearen hasieran, Aduanas Viuda de Fernández egoitzaren aurrean aparkaturik.
G57769: Ezkerrean Aduanaren instalazioak eta eskuinean Irungo tren geltokia, 1906. urtearen aurretik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Irun Euskaraldiaren bigarren edizioan murgilduta dago

Irun Euskaraldiaren bigarren edizioan "aho-belarri" murgilduta dago. Abenduaren 4ra arte Euskal Herri mailan egingo den ariketa sozialean parte hartzeko aukera izango dute irundarrek, Ahobizi edo Belarriprest rolak hautatuz. Gainera, ariketa sozialak abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat egingo du.

Euskaraldiaren bigarren edizio honek, ordea, lehen edizioko helburuari eusten dio: hizkuntza-ohiturak aldatzea gizarte talde guztietara zabaldutako eta denboran mugatuta izango den ariketaren bitartez. Azken datuen arabera, Irunen 2.179 pertsonek eman dute izena Euskaraldian, 1.679 Ahobizik eta 500 Belarriprestek zehazki eta, entitateei dagokienez, 93 entitate batu dira ariketara, euskaraz aritzeko ia 400 Arigune sortu dituztelarik.

Irunen kasuan, Euskaraldia eta Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako ekintzak abenduaren 5era arte luzatuko dira. Hortaz, oraindik euskaraz antolatutako zenbait ekintzez gozatu ahal izateko azken aukera izango dute hiritarrek. Abenduaren 1ean, asteartea, Amaia Kultur Zentroko areto nagusian Txalo Produkzioak taldeak "Zoaz Pake Santuan" antzerkia eskainiko du 19:00etan. Ostegunean, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunarekin batera, Amaia Kultur Zentroan "... Nahi dugu hitz eta jolas" bertso saioarekin beteko da arratsaldeko 19:00etatik aurrera aretoko antzoki nagusia. Azkenik, abenduaren 5earako, larunbaterako, Topaguneak Laburbira Euskarazko Film Laburren XVII. Zirkuitoa antolatu du arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Bukatutakoan, Yolanda Mazkiaran zuzendariarekin solasaldia izango da.

Ekitaldi guzti hauek doakoak izango dira. Antzerkia eta bertso-saiorako sarrerak turismo bulegoan jaso ahal izango dira edo Amaia Kultur Zentroaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan. Katujiraren kasuan, aldiz, mezu bat idatzi beharko da euskara@irun.org posta kontura izen-abizenak eta "Kantujira" adieraziz. Udaletik gonbidapenak helaraziko zaizkie interesatuei bueltan edukiera bete arte. Jarduera guztietan segurtasun- eta higiene-neurriak mantenduko dira (maskara, gel hidroalkoholikoa, distantziak, kopuru mugatua, etab.).

Hiritarrak protagonistak

Euskaraldiaren bigarren edizio honetan, norbanakoen parte-hartzeaz gainera, hiriko entitate eta elkarte ezberdinek sortutako Ariguneen bitartez gauzatuko da ariketa soziala. Horretarako, Euskaraldia hasi aurreko hilabeteetan zehar hiriko entitate, elkarte, ostalaritza eta merkataritza establezimenduek ariketan parte hartzeko izena eman zuten, ariketak kutsu soziala izan dezan. Irungo Hizkuntza Eskola Ofizialetik, adibidez, Euskaraldiaren lehen edizioan ikasleak ariketa parte hartzeko animatu zituzten. Joxemi Gallastegi Irungo Hizkuntza Eskolako Normalkuntza arduradunak azaldu duenez, aurten entitate moduan Euskaraldian izena emateko aukera eskaini denez, hizkuntza eskola gisa ariketan parte hartzea erabaki dute. Hizkuntza Eskolan ingelesa, frantsesa, eta alemana irakasteaz gainera, euskara ikastaroak ere eskaintzen dituzte. Horregatik, Joxemi Gallastegik azaldu bezala, euskararen inguruan honelako ekimenak martxan jartzea aproposa iruditzen zaie eta, Euskararen Egunarekin egin ohi duten bezala, Euskaraldiaren inguruan lehiaketa edo mintzodromo bereziren bat antolatzeko ideia dute.

Azken Portu auzoan kokatutako De Perita fruta-dendan ere Euskaraldiarekin bat egin eta Argiunea sortu dute. Victor Ortega fruta-dendako jabeak azaldu duenez, bezero guztiak gazteleraz hitz egiten diotela ikusi ostean, auzoko jendearen artean euskara sustatzeko modu aproposa iruditu zaio. Victor Ortegak Belarriprest rolean arituko da salmahaiaren atzetik, "euskara menperatu ez arren, gehiago ikasteko bezeroak niri euskaraz zuzentzea gustatuko litzaidake".

Kirol entitateak ere Euskaraldira batu nahi izan dira. Super Amara Bidasoa Altetiko Taldeak, klubetik antolatutako ekitaldi guztietan bezala euskara sustatzeko konpromisoa mantentzeko, Arigune gisa parte hartuko du 2020ko Euskaraldian. Adur Amilibia klubeko marketing teknikariaren hitzetan, "atletismo entrenamenduetan euskaraz aritzeaz gainera, zuzendaritza taldearen zereginetan euskara txertatzen ahalegintzen gara.

Patricia Ruiz Plaiaundi Institutuko ikasketa buruak azaldu duenez, "Euskaraldian talde gisa parte hartzeko aukera oso interesgarria iruditzen zaigu". Ikastetxe gisa Euskaraldian parte hartzea oinarrizkotzat jotzen dute Plaiaundi Institutuan, ikastetxean herri desberdinetatik etorritako ikasleak elkartzen direla ikusita. Gainera, ikasketa buruak azaldu bezala, Irunen kasuan euskarak bultzada berezi bat behar du .

All4Movil enpresatik, Jon Garmendiak azpimarratu duenez, "merkatarien artean euskara bultzatu eta euskaraz salerostea posible dela erakutsi beharra dago". Euskarak egun bizi duen egoera ikusita, honelako ekimenak laguntza handikoak direla uste du telekomunikazio enpresako nagusiak. Hortaz gain, gizartean telekomunikazioen sektorean gazteleraz soilik lan egiten dela aurresuposatzen da askotan eta Jon Garmendiaren iritziz, hori lehenbailehen aldatu beharra dago.

Alberdania argitaletxeak ere Euskaraldira batzeko aukera aprobetxatu nahi izan du. Jorge Giménezek Alberdania argitaletxeko zuzendariak azaldu bezala, "Euskaraldia bezalako ekimenetan indarrak batzea garrantzitsua da eta gu ezin ginen albo batera gelditu". Euskaraz eta euskararentzako sortutako argitaletxe gisa, ezinbestekoa zen Arigune bat sortzeko aukera aprobetxatzea.

2020ko Euskaraldian Arigune gisa parte hartuko duten entitateen taldea oso zabala da, ariketa sozialak iraun bitartean eta etorkizunean Irunen euskaraz mintzatzeko aitzakiarik falta ez dadin.

"Euskara menperatu ez arren, gehiago ikasteko bezeroak niri euskaraz zuzentzea gustatuko litzaidake"

Victor Ortega, De Perita fruta-dendako nagusia

"Euskaraldian talde gisa parte hartzeko aukera oso interesgarria iruditzen zaigu"

Patricia Ruiz, Plaiaundi Institutuko ikasketa burua

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

“Askeak, ez ausartak” lelopean Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren VI. edizioa aurkeztu da

Berritzegunearekin lankidetzan haur, nerabe eta gazteei begira sortutako Asun Casasola Berdintasuna Amets proiektuaren sorreraren berri eman da

Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren VI. edizioa aurkeztu da. “Askeak, ez ausartak” lelopean lanak 2021eko otsailaren 10era arte aurkeztu ahalko dira. Aurreko urteetan egin bezala, gazte eta helduen kategoriak bereiziko dira eta euskaraz zein gazteleraz idatzitako lanak jasoko dira. Hortaz gain, Asun Casasola Berdintasun Amets proiektu berria aurkeztu da.

Lehiaketak lau kategoria izango ditu. Batetik, helduen kategoria, euskaraz eta gaztelaniaz, 2004. urtera arte jaiotako pertsonentzako eta, bestetik, gazteen kategoria, euskaraz eta gaztelaniaz ere, 2004. eta 2010. urteen artean jaiotako pertsonentzako.

Lanak aurkezteko epea 2021eko otsailaren 10era arte irekita egongo da. Ipuinak “asuncasasolaipuina@gmail.com” posta elektronikoko helbidera bidali ahal izango dira, edo posta arrunta bidez, ondorengo helbidera: BDS koop., Aixin Zolua Ibilbidea, 5, 20304 Irun, Gipuzkoa. Orduan hasiko da epaimahaikideen lana eta martxoaren 8an iragarriko dira irabazleen izenak egun horretan bertan egingo den sari banaketan.

Kategoria bakoitzeko sari bat egongo da. Helduen kategoriako irabazleek (bai euskarazkoak eta baita gaztelerazkoak ere) 300 euroko sariaz gain, 50 euroko balioa duen liburu pakete bat jasoko dute, Iruñeko Katakrak liburu-dendaren eskutik. Gazteen kategoriako irabazleek, bai euskarazkoak eta baita gaztelerazkoak ere, 100 euroko saria jasoko dute, eta 50 euroko balioa duen liburu pakete bat, hau ere Katakrak liburu-dendak eskainita. Irabazleek jasoko dituzten liburuek feminismoaren inguruko gaiak jorratuko dituzte.

Asun Casasola Ipuin Lehiaketak “Askeak, ez ausartak” gaia izango du ardatz lehiaketaren seigarren edizioan. Lelo horrekin Emakumeon Mundu Martxari keinua egin nahi izan diote, martxaren V. edizioa Irun eta Hendaia lotzen dituen Etorbidearen zubitik abiatu zela aprobetxatuz. Zazpi urte pasa dira lehiaketa martxan jarri zenetik eta urte hauetan 1.000 ipuin baino gehiago jaso dituzte antolatzaileek, adin guztietako pertsonek idatzitakoak, eta munduko hamaika txokotatik iritsitakoak. Lehiaketara aurkeztutako lanak originala izan beharko du, inolako euskarritan publikatu gabekoa eta aurkezten den hizkuntzan idatzitakoa, ez da itzulpenik onartuko.

Hala ere, lehiaketaren oinarriak eta lehiaketarekin lotutako informazio guztia www.asuncasasolaipuinak.eus webgunean eskuragarri daude eta antolatzaileekin asuncadasolaipuina@gmail.com helbide-elektronikoaren bitartez kontaktuan jartzeko aukera egongo da.

Epaimahaia

Aurten ere, epaimahaia emakumez osaturik egongo da, bere osotasunean. Hainbatek aurreko ediziotan ere parte hartu izan dute eta beste batzuk orain batu zaizkie, baina guztiek dute feminismoarekin edo literaturarekin nolabaiteko harremana.Helduen kategorian, euskaraz, Yurre Ugarte idazlea eta Ainara Zuazabeitia eta Aitziber Zapirain kazetariak izango dira. Kategoria berdinean, gazteleraz, Mertxe Tranche, Marian Benitez eta Virgia Gasul Idazlea. Gazteen kategorian, euskaraz, Itziar Gomez, Ainara Maia eta Ane Perez izango ditugu, eta gazteleraz, Noelia Lorenzo, Maite Vergara eta Naroa Lopez.

Etenik gabeko borroka

2020 honetan, 12 urte bete dira Nagore Laffage erail zutenetik. Orduan hasi zen, Asunen, bere amaren borroka, eta gaur egun oraindik ere jende askorentzako eredu da. Asun Casasolak azaldu duenez, lehiaketako antolatzaileek borrokari eusten diotela ikusita, berak ere hor egon behar duela sentitzen du. “Eskola eta instituzioetatik gauzak aldatzeko lanean jarraitu behar dugu”, adierazi du Nagore Laffageren amak. Asun Casasolak azaldu duenez, eskatzen dioten leku guztietarako joateko ahalegina egiten du beti, eskoletara joan eta bertan hitzaldiak edo tailerrak emateari garrantzi handia ematen dio, izan ere, azpitik gizartearen egitura eraldatzea errazagoa izango dela uste baitut, goian aldaketak egitea konplikatua baita.

Asun Casasola Berdintasuna Amets

Asun Casasola Ipuin Lehiaketak literatura bidelagun hartuta, indarkeriaren kontra egiteko asmoa izan du bere sorreratik. Horretarako, Berdintasuna Amets proiektuarekin indarrak batu eta Asun Casasola Berdintasuna Amets egitasmoa sortu da. Elkarlanetik sortutako proiektu berri honen bitartez haur, nerabe zein gazteei begira bidea egin nahi da.

Kalean zein ikastetxeetan indarkeria matxistarik gabeko eta genero berdintasunaren aldeko jendartea irudimenean amestu eta errealitatean eraikitzeko helburua du proiektu berri honek. Dena den, datozen agerraldietan proiektu berriaren xehetasunak azalduko dira.

Itziar Sistiaga, idazlea:

“Etorkizunean istorioak sortzen eta partekatzen jarraitzeko asmoa dut”

Argazkia: Estudio Gover

Itziar Sistiagak bere hirugarren eleberria aurkeztu berri du “Maldito Gorri” titulupean. Idazle irundarrak enkarguz idatzitako lehen liburua da eta Agustín Garabideren biografia nobelatu kontatzen da bertan. Sistiagak orrialde berri horien atzean ezkutatzen diren istorioen aurrerapen txikia egin du.

Nobela berezia argitaratu berri duzu, izan ere, ideia enkarguz iritsi zitzaizun, ezta?
Bai, Agustín Garabide nirekin kontaktuan jarri zen eta joan den urteko abenduan liburua idazteko eskaria egin zidan. Bere dokumentuak bidali zizkidan eta bere bizitzaren abentura partekatzeko zuen ilusioa kutsatu zidan. Kontatzen dizkidaten istorio guztiak entzuteko ohitura dut eta asko gustatu zaidan esaldi bat esan zidan: “istorio honi arima ateratzea nahiko nuke”. Nirekin konektatu zuen eta igerilekura salto egitea erabaki nuen.

Erraza izan da istorioa Agustín Garabideren ikuspuntutik kontatzea?
Eromena izan da. Agustínen bizitza Goierriko gazte baten bizitza da, oso gaztea dela Ormaiztegitik atera eta nautika ikasketak egin ostean, telegrafista gisa merkataritza-nabigazioan sartzen dena. Horrek, munduan zehar bidaiatzea dakar, portu bakoitzean ezagututako emakumeekin eta aurreratuko ez ditudan beste zenbait abenturekin. Gainera, pertsona saiatua da, beraz, nabigazioa uzten duenean, beste proiektuetan murgiltzen da. Konplexua izan arren, berarekin izandako harreman hurbilak lana asko erraztu dit, batez ere, dokumentazio lana.

Zergatik erabaki zuen istorio honek liburu batean kontatua izateko garrantzia zuela?
Joan den urteko abenduan nire hirugarren nobela amaituta nuen eta 2020an proiektu horrekin hastea aurreikusita nuen. Hala ere, nire intuizioak esandakoari arreta handia eskaintzen diot eta istorio honi lekua egin behar niola ikusi nuen. Arriskatzeko erabakia hartu ez banu, aurrerantzean zalantza horrekin bizi beharko nintzateke.

Konfinamenduan zehar idatzitako lana izan da. Emaitzan eragina izan du horrek?
Istorioan kontzentratzeko denbora gehiago izan dut, idazkera tailer asko bertan behera gelditu ziren eta. Hortaz, liburua idazteko denbora gehiago izan nuen eta otsaila eta apirileko hilabeteen artean idatzi nuen.

Urte ezohiko honetan, liburua modu ezberdinean aurkeztu duzu. Nolakoa izan da liburua sare-sozialen bitartez aurkeztea?
Espero baino hobeto joan da dena. Liburua aurkeztu eta urte honetan ere gauza onak gertatzen ari direla ospatu behar nuela argi nuen. Aurkezpena YouTube eta Instagram bidez egitea erabaki nuen, plataforma horietan jarraitzaile asko dauzkadala aprobetxatuz. Oso dibertigarria eta oso hunkigarria izan da. Ez nuen uste aurrez aurreko aurkezpenetan bizitako sentsazioak telematikoki sentitzeko aukerarik izango nuenik. Mundu osoko 130 pertsona baino gehiago elkartu ginen bertan.

Zein portzentajean nahasten dira fikzioa eta errealitatea eleberri honetan?
Errealitatea %90a eta fikzioa %10a direla esango nuke. Fikzioa bilbe ezberdinak lortzeko erabili dut. Hala eta guztiz, jendeak liburua irakurri duenez, Agustín, irakurleak eta ni neu elkartzeko topaketa bat antolatzea gustatuko litzaidake, protagonistak berak errealitatea eta fikzioa zer diren azaltzeko aukera izan dezan.

Denetarik nahasten da istorio honetan? Amodioa, laguntasuna, abenturak, ...
Bai, emaitza sekulako istorioa izan da, bi arratsaldeetan irakurtzeko modukoa. Hortaz gain, nire ukitua eman diot eta gogoetara bultzatzen duten zenbait puntu dauzka.

Itsasoa edo baserriak bezalako pasaia ezberdinetatik mugitu zara eleberrian zehar?
Bai, izan ere, Agustinek nahiko argi zeukan bere herriko inguruneaz hitz egin nahi zuela. Nobelan Ataundik Japonia, Angola edo Brasilera joan gaitezke. Paperezko edizioa sei mapekin osatu dut, gizon honen bizitzaren bidaia ulertzea errazagoa izan dadin.

Non eskuratu daiteke “Maldito Gorri”?
Irunen Tinta Comics, Elkar eta Kiosko 33 liburu-dendetan egongo da eta Donostian Hontzan. Beti ere, nire webgunetik eskuratzeko aukera egongo da eta maitasun askorekin sinatuta bidaliko dut.

Zer lortu nahiko zenuke protagonista, idazle eta irakurleen arteko topaketa horretan?
Batez ere, irakurleei Agustin zein den deskubritzeko aukera eman nahi diet, nobelan gezurra eta erreala dena ikusteko aukera emateaz gainera.

Orain dela gutxi Irungo Liburu Azokan parte hartu zenuen, ezta?
Bai, hemen inguruan antolatzen diren ekitaldi guztietan parte hartzea gogoko dut eta udalak Oskarbiko idazleoi azokan parte hartzeko gonbidapena luzatzea asko gustatu zait. Momentuko egoera kenduta, Irunen inoiz antolatu den liburu azoka onena izan dela esango nuke eta etorkizunean maila bera mantentzea nahiko nuke.

Hortaz gain, sormenezko idazkera tailerrak ematen jarraitzen duzu?
Bai, Irungo liburutegian 8 urte inguru daramatzat eta Hondarribian bigarren urtea hasiko dut. Gainera, webgunean nik emandako beste tailer eta ikastaroak ematen ditut.

Behin liburua publikatuta, hurrengo proiektuetan pentsatzen hasi zara?
2021 urterako asmoa liburu hau publikatzeko bidean utzitako istorio hori berreskuratzea izango da. Etorkizunean istorioak sortzen eta partekatzen jarraitzeko asmoa dut, gakoa bakoitzaren borondatea baitago, ez momentuko baldintzetan. Izan ere, urte honek erakutsi digu, momentuko zailtasunen gainetik, jende askok aurrera jarraitzeko bidea topatu duela.

Bortxazko laner

Dunboako kanala: Dunboako kanala edo Olaberriako errekaren ubidearen eraikuntza lanak. Iturria: Jose Mª Castillo.

Barrakoiak Oiartzun aldean

Behe Bidasoako biztanleek eskualdea ondo ezagutu arren, gutxik ezagutzen dute inguruko herrietako errepide zein ubideen eraikuntzaren atze- an ezkutatutako istorioa. Izan ere, memoria historikoaren berreskurapenak egitura horietako asko bortxazko lanen bitartez eraikiak izan zirela jakin da. Konkretuki, "trabajadore" izena jaso zuten presoek burututako lanak izan ziren Ines F. Monjek egindako elkarrizketek erakutsi dutenez.

Bortxazko lanen bitartez eraikitako horien adibide hurbilenak itsasaldetik Jaizkibel mendia zeharkatzen duen G-3440 errepidea, Gaintxurizketa eta Arkaleko gainak lotzen dituen GI-2134 errepidea, Irun eta Erlaitz lotzen dituen GI-3454 errepidea dira. Errepideez gainera, bortxazko lanez baliatuz, Irungo Ama Xantalen, Korrokoitz eta Santiago auzoa zeharkatzen duen ubidea eraiki zen. Bortxazko lanak 1936. urtean gertatutako Altxamendu Nazionalaren osteko testuinguruan kokatu behar dira. II. Mundu Gerra lehertu ostean, Frantziarekin muga egiten zuten lurrak kontrolpean izateko beharra ikusi zuten, inbasio posible bat garaiz ekidin ahal izateko. Hain zuzen ere, Behe Bidasoa eskualdean eta inguruko lurretan gerra garaian estrategikoak izandako puntu ezberdinak zituen, hala nola, Guadalupeko gotorlekua, Arkaleko gaztelu zaharra, Erlaitz edota Pikoketa. Gauzak horrela, arazoa puntu estrategiko hauen arteko loturan zegoen.

"Bortxazko lanak Gipuzkoako errepideetan" liburuan azaltzen denez, estrategia taktiko horren garapenean, Frankistek bi motako errepideak diseinatu zituzten: estrategikoak, ejertzitoaren erretagoardiako mugimenduak errazteko, eta taktikoa, ejertzitoaren defentsa maniobrak errazteko, mugarekiko paraleloak zirenak edota gune taktikoen arteko lotura ezartzen zutenak.

Dunboako kanala

Irungo Olaberria auzoan hasten den ubidearen eraikuntzak, ordea, ez du behar militarrekin inolako loturarik. 1933ko Urdanibia plaza eta Santiago kalea urpean utzi zituen uholdearen ostean 1935. urtean Irungo udalak uholdeen defentsa sistema sortzeko komisio bat eratu zuen, beranduago Gerra Zibilaren eraginez bertan behar gelditu bazen ere.

Hiru urteren ostean, Ferrocarriles y Construcciones A.B.C.-k hartu zuen uholdeen aurkako defentsa eraikitzeko ardura, Nazionalek Gipuzkoa okupatu zutela aprobetxatuta, enpresaren egoitza Kataluniatik Gipuzkoara lekualdatu ostean. Enpresak Gipuzkoan ia 1.000 preso izan zituen lanean, estatuan, guztira, 2.000 preso.

Aiala Oronoz "A pico y pala" liburuaren egileak azaldu duenez, "Irungo kanalaren eraikuntza lanetan 200 preso inguruk parte hartu zutela uste da". Dunboako kanalaren eraikuntza lanetan parte hartu zuten presoek Santa Elena kaleko zubiaren alboan kokatutako biltegi zaharrean lo egin zuten. Gainera, errekaren kanalizazioan oso gipuzkoar gutxik lan egin zutela jakin da, presoak estatuko 34 probintziatik ekarriak izan baitziren, presoen dispertsioa eta leku aldaketa masiboa eraginez. Preso gehienak Extremadura, Andaluzia eta Galiziatik ekarriak izan ziren.

"Irungo kanalaren eraikuntza lanetan 200 preso inguruk parte hartu zutela uste da"
Aiala Oronoz, "A pico y pala" liburuaren idazlea

Aiala Oronoz idazleak azaldu duenez, ordez, zaila da gaiaren inguruko informazioa topatzea. Esaterako, bere liburua idazteko dokumentazio lana egiteko langileen zigor espedienteak banan-banan arakatu behar izan ditu. "Espediente bakoitza aztertu ostean, perspektiba orokor bat izatera iritsi naiz", azaldu du idazleak. Donostiako Ondarreta espetxeko espedienteak Oñatin gordeta daude, Gipuzkoako Artxibategi Historiko Probintzialean. Aiala Oronozek bortxazko lanetan aritu ziren 207 preso identifikatzea lortu da eta gehiago izan ote ziren zalantza du. Behin lanak amaituta, hemen gelditzen ziren preso asko Errenteriako destakamentura eraman zituzten Oiartzun ibaiaren kanalizazio lanei ekiteko.

Aiala Oronozek salatu duenez, sistemak presoen erabilgarritasuna sustatu zuen, ez bakarrik enpresetatik, obra hauek Herri Lanen Ministeritzak ordaindu baitzituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren %25eko ekarpenarekin, hau da, diru publikoarekin. Presoek soldataren %10a jasotzen zuten eta sistema horren barruan lan egun bakoitzeko penaren egun bat kentzen zietela suposatzen zen. Lan egin heinean zigorra murrizten zela suposatu arren, Aialak ikerketen bitartez egiaztatu du zigorraren murrizketa hori kasu askotan aplikatu ez zela.

n iragan ezkutua

Jaizkibelgo errepidea egin zuten langile esklaboak arrantxoaren orduan.

Marcelo Usabiaga, askoren adibide

Miguel Usabiaga idazleak Hondarribia babes-portutik bere aitak, Marcelo Usabiagak, bortxazko lanen inguruan izandako bizipenak kontatu ditu. Marcelo Usabiaga Errepublikaren erorketan atxilotua izan zen Espainiako Alderdi Komunistako kide gisa eta Valentziako Gerra Kontseiluan 30 urteko espetxe zigorra jaso zuen. Ondarretako kartzelan atxilotuta zegoela, presoei Gipuzkoako toki ezberdinetan egitekoak ziren errepideen eraikuntza lanetan parte hartu zuen. Irun inguruan zenbait errepide eraiki baziren ere, Marceloren semeak azaldu duenez, "Irun inguruko faxisten errepresalien beldur zenez, lekualdaketa eskatu eta Arroara bidali zuten". Izan ere, Marcelo oso pertsona ezaguna zen Irunen eta horregatik hiritik urrutien zegoen obra aukeratu zuen.

Marcelo Usabiagak Ferrocarriles y Construcciones A.B.C enpresarentzat, beste 200 presok bezala, Arroako Beheko harrobian lan egin zuen, harrobiko materiala garraiatzeko aireko linea baten eraikuntzan. Enpresak ekoiztutako materialaren zati bat Naziek Atlantikoko Harresiaren eraikuntzarako erabiltzen zela jakin zutenean, presoek aliatuak lagundu eta aireko linearen eraikuntza saboteatzeko erabaki zuten, lan kaxkarra eginez eta, ondorioz, eraikitako linearen hainbat zutabeen erorketa eraginez. Agintariek presoen sabotajeez konturatzen hasi zirenean, ordea, bertatik ihes egiteko beharra ikusi zuten, Ondarretako espetxera itzultzea saihesteko.

"Irun inguruko faxisten errepresalien beldur zenez, lekualdaketa eskatu eta Arroara bidali zuten"
Miguel Usabiaga, Marcelo Usabiaga errepublikarraren semea

Ondarretako espetxeko baldintzekin alderatuta eta presoak ziren arren, lanean zeuden bitartean askatasun eta baldintza hobeak zituzten. Lan egiten zuten bitartean herriko biztanleekin nolabaiteko harremana zuten eta askatasun sentsazio minimo bat. Hortaz, agintariek harrapatu aurretik Frantziara ihes egitea lortu zuten. Frantziara iritsi bezain laster, bertan Frantziako Erresistentzian parte hartutako erbesteratu errepublikarekin harremanetan jarri zen. Espainiako estatuak bizi zuen egoera ezagututa, alboko herrialdean bizi ziren errepublikaren garaipen sentimendu guztiahaltsua guztiz partekatu ez arren, 1944ko urri eta azaroko hilabeteetan Espainiara gerrillariak pasatzeko planen antolaketan parte hartu zuen, mugalari gisa izandako esperientzia partekatuz.

Urte horretan bertan, azaroaren 20an beste 10 gerrillarirekin batera Ondarraitzeko hondartzatik Fraileko Hondartzan lehorreratzea lortu zuen, ondoren baserri batean ezkutatzeko. Lorpenak egun gutxi iraun zituen, egun batzuen buruan taldea harrapatuta eta atxilotua izan baitzen. Marcelo Usabiaga Loiolako Kuartelean egin zen Gerra Kontseiluan beste 30 urteko espetxe zigorrarekin zigortua izan zen, kasu honetan gainera, ihesaren astungarriarekin. Ondarretako espetxara itzuli eta beste hainbat eespetxeetatik igaro ostean, Burgoseko Espetxe Zentraleraino iritsi zen.

Miguel Usabiagak, Maceloren semeak, bortxazko lanen inguruan hitz egitea ezinbestekotzat ikusten du. Semearen ustez, memoria historikoaz hitz egiten hasi aurretik, benetan gertatutakoaren egia ezagutzea beharrezkoa da. "Gizartean gertatutakoaren egia zabaldu dadin, eskoletan gaia lantzea beharrezkoa da", azpimarratu du Miguel Usabiagak.

Gipuzkoa osoan zabaldua

Ez da beharrezkoa Irundik urrutiegi joatea bortxazko lanekin lotutako adibide berriak topatzeko. Oiartzunen Kattin Txiki eta Lezon Etxetxo elkarteak memoria historikoa berreskuratu eta lantzeko helburuarekin sortu ziren. Denboran atzera eginez, herri horietan iraganean gertatutako bortxazko lanen aztarnak eta zenbait datu topatu dituzte iraganean arakatuz. Bi elkarteetako ordezkariek azaldu dutenez, ordea, tartean igarotako denbora luzearen ondorioz, zaila izan da garai ilun hartako lekuko zuzenak aurkitzea. Hala ere, aurkitutako informazio urrian sakondu eta herrien inguru hurbiletan arakatuz, informazio aski esanguratsua topatu dute.

Kattin Txiki elkarteko Mikel Mendizabalek adierazi duenez, "Oiartzungo eta inguruko lurretan presoek eraikitako 60 kilometro inguru daudela uste dugu". Obra nagusi horietako bat Ergoiendik Lesakara egindako bidea izan zen, egun GI-3420 zifrarekin identifikatzen dena. Oiartzunen 102. batailoiak lanean hasi zen, aldi berean, Lesakatik beste batailoi batek lanekin hasi zen bitartean. Mendizabalek bitxikeria gisa azaldu bezala, Aritxulegiko tunelean bi batailoiek egindako lana elkartzea zen, baina, topografiaren gora-beheren ondorioz ez ziren erdian aurreikusi bezala elkartu eta beranduago bidea zuzentzea beharrezkoa izan zen.

Kattin Txiki elkarteko kideak azaldu duenez, granitozko harriaren gogortasuna dela eta, dinamita asko erabili behar izan zen eta, ondorioz, preso asko hil ziren lan horietan. Hortaz gain, Arkale edo Lanbarren bezalako bideak helburu militarrarekin eraikiak izan zirela baieztatu du Kattin Txiki elkarteak, bunker ezberdinen arteko loturak eraikitzeko.

Lezoren kasuan, aldiz, Etxetxo elkarteak zabaldu duenez, Jaizkibelgo bidea eraiki zuten "trabajadoreak" dira herrian bortxazko lanek izandako presentziaren adibide garbiena. 2016an hasi ziren gaiaren inguruan ikertzen, garai hori gertutik bizi izan zuten herritarrek emandako pistak jarraituz. Horrela, herriko lurretan sasiek eta denborak ezkutatutako presoen batailoien arrastoak aurkitu zituzten. Auzolanaren bitartez eremua garbitu eta gertakarien kronologia berreraiki dute. Etxetxo elkarteko Jose Luis Agirretxek azaldu duenez, 1939ko udan iritsi ziren lehen "trabajadoreak" Lezora eta lehen kanpalekua Lezo eta Pasai Donibane arteko Erroteta eremuan izan zuten. Jazikibelgo errepidearen eraikuntza lanek aurrera egin ahala barrakoi berriak eraiki zituzten presoek.

Horrelaxe egin zen egun Lezotik Guadalupeko santutegira doan GI-3440 errepidea. Aritxulegiko lanekin alderatuta, errepide honen eraikuntza lanak luzeagoak izan baziren ere, Jaizkibelgo ondar-haitzak errepidearen zulaketa lanak erraztu zituen. Hasiera batean, Etxetxo elkartetik errepidearen eraikuntzan 700 langile inguruk parte hartu zutela kalkulatzen zuten, baina, langileak txandakatu zirela deskubritu ostean, presoen ia 4.500 edo 5.000 izen berreskuratu dituzte dagoeneko.

Behin presoek bortxaz egindako lanen inguruko dokumentazioa eta informazioa bildu ostean, egindako lanak publikoki behar bezala identifikatu eta seinaleztatzea falta da. Memoria historikoa errespetatua izan dadin, urrutiegi joan gabe, etorkizun hurbilean egiteke dagoen lana da. "Trabajadore"-ek jasandako gehiegikeria aldatzerik ez dagoenez, gutxienez, haien izena, izana eta lana errekonozitzeko beharra dago egungo gizartean.

Irati Beorlegi, oztopo-lasterketetako kirolaria:

“Mota desberdineko oztopoak gainditzeko trebetasun ezberdinak izatea garrantzitsua da”

Irati Beorlgik gimnastika erritmikoaren bitartez izan zuen kirolarekin lehen kontaktua. ETBk ekoiztutako “El Conquistador del Fin del Mundo” saiotik igaro ostean, oztopo-lasterketak probatu zituen eta estatu mailan hiru modalitate ezberdinetan garaile izatea lortu zuen 2019. urtean. Hemen inguruan ezagunegia ez den kirol honen gakoak azaldu ditu.

Zein kirol modalitatean zabiltza zu?
Oztopo-lasterketak egiten ditut. Kirola OCR deitu arren, jendeak “Spartan Race” markaren izenez ezagutzen du. Menditik egiten diren lasterketak dira, lokatz artean, oztopo ezberdinak gaindituz eta leku desberdinetatik zintzilikatuz, besteak beste.

Zerk eraman zintuen horrelako lasterketak probatzera?
ETBko “El Conquistador del Fin del Mundo” programan parte hartu ostean ezagutu nituen. Telebista saiorako prestatzeko Hernaniko Denontzat gimnasioan entrenatzen hasi nintzen Ismarekin. Ostean, oztopo-lasterketak egiten zirela deskubritu nuen eta, probak asko gustatu zitzaizkidanez, lehen oztopo-lasterketa probatzea erabaki nuen.

Horrela, hiru modalitateetan Espainiako Txapeldun izatera iritsi zara, ezta?
Bai, ligan, lasterketa laburretan eta luzera handiko lasterketetan zehazki. Nire lehen lasterketan 6. postua lortu nuen eta lehen bost sailkatuak mundialean sartzen zirela jakin nuenean, entrenatzen jarraitzeko erabakia hartu nuen. Aurretik gimnastika erritmikoan ibiltzen nintzen eta lehen urte hartan bi kirolak uztartu nituen. Hurrengo urtean, berriz, oztopo-lasterketetan zentratu eta gehiago entrenatzen hasi nintzen. 2019an liga guztia egin nuen. Lehen lasterketa urtebete beranduago errepikatu eta lehen postua lortu nuen. Emaitzarekin harrituta gelditu nintzen lehiakideen maila ikusita eta entrenatzen jarraitzeko motibazioa eman zidan horrek. Liga irabazi nuen, lasterketa guztien emaitzak batu ostean eta nazionalean distantzia luze eta laburreko txapelketetan nagusitu nintzen.

Nolakoa izan zen Europa eta mundu mailako txapelketetara salto egitea?
Estatu mailan oztopo-lasterketak ez dira oso ezagunak, ez baitago federaziorik, hortaz, Spartan Race eta OCR lasterketak bereizten dira. Egia da, hemendik kanpo, Europan eta munduan zehar oztopo-lasterketak ezagunagoak direla, beraz, lehia-maila altuagoa da eta federazioen eragina nabaria da. Maila horretako txapelketak probatu ahal izateko zortea izan nuen eta bestelako oztopoak ezagutzeko aukera eman zidan horrek.

Nolako eragina izan du osasun krisialdiak zure entrenamenduetan?
Euskadi mailan horrelako probak prestatzeko Denontzat gimnasioak daude eta oztopo-lasterketak prestatzeko oso aproposak dira. Hor entrenatzen hasi nintzen eta konfinamenduan, berriz, etxean estruktura moduko bat eraiki nuen, jende gutxiago elkartu eta ibiltzen den tokietan entrenatu ahal izateko. Orain batez ere menditik korrika entrenamenduak egiteko aprobetxatzen ari naiz. Azken finean, oztopoak gainditzea eta korrika egitea eskutik doaz kirol modalitate honetan.

Aurretik gimnastika erritmikoa praktikatzea lagungarria izan zitzaizun oztopo-lasterketen munduan murgiltzeko erabakia hartu zenuenean?
Bai, egia esan, gimnastika erritmikoari esker oztopoak igarotzerako orduan orekaren kontrol ona nuela ikusi nuen. Lasterketan orekarekin loturiko probak daude eta hainbat urteetan gimnastika erritmikoa praktikatu ostean, oreka aldetik ondo nabilela ikusi dut. Hortaz gain, nolabaiteko trebetasuna dut, izan ere, tximinoen antzera ibiltzea asko gustatzen zait eta oztopoetatik zintzilikatzerako gaian nabaritzen den zerbait da. Mota desberdineko oztopoak gainditzeko trebetasun ezberdinak izatea garrantzitsua da. Era askotako proba horien artean, badira pisuarekin zerikusia dutenak.

Nola lortu zenuen “El Conquistador del Fin del Mundo” programan parte hartzeko aukeratua izatea?
Nire bizitzako esperientzia onena izan dela esan dezaket, izan ere, telebista saioan parte hartu ostean nire bizitza guztiz aldatu da. Aurretik oso bizi estilo lineala nuela esango nuke eta orain, aldiz, ni neu nolako naizen ezagutzeko aukera eman dit eta abenturarekiko grina piztu dit. Gauza berri asko ezagutzeko aukera izan dut eta horrek nire izaera aldatu duela esango nuke. “El Conquistador del Fin del Mundo” programan parte hartzea sekulako esperientzia da eta oso erakargarria da proba ezberdinak egiteko aukera eskaintzen duelako. Ezer gabe uzten zaituzte zure egoera berdinean dauden beste pertsona batzuekin eta zaila da egoera kudeatzen jakitea. Erronka horrek zure bizitzan baliagarriak izango diren gauzak erakusten dizkizut. Horri esker oztopo-lasterketetan hasi naiz ni eta, bizitzan gertatzen den bezala, oztopoak gainditzen ikasi dut.

Zein mezu bidaliko zenieke oraindik kirol hau probatzeko zalantzetan dauden pertsonei?
Mundu guztiari gauza bera esaten diot, probatu beharreko kirola dela, arreta deitzen dizuten gauza guztiekin egin behar den bezala. Edonork oztopo-lasterketak probatzeko aukera duela uste dut, zure buruaren aurka edo lehiakideen aurka lehiatzeko aukera ematen baitizu. Oztopoak gainditu ez arren, aurrera jarraitzeko aukera izango duzu beti. Ni, adibidez, oso burugogorra naiz eta oztopoak nire kabuz gainditzea gustatzen zait aurrera jarraitu aurretik. Hala ere, kirola probatu eta ondo pasatzeko aukera dago beti.

Hegan egiteko aukera edonoren esku jartzen du Bidasoa Vuelok

Argazkiak: Estudio Gover

Bidasoa Vuelo 1983. urtean sortu zen eta mota honetako estu mailako lehen eskoletako bat izan zen. Eskolak hasierako helburuari eusten dio oraindik, hau da, hegaldi seguruak modu eraginkorrean egiten irakaste. Jurdan Uruñuelak Bidasoa Vuelotik eskaintzen diren hegaldi aukera ezberdinak azaldu ditu.

Zer eskaintzen duzue Bidasoa Vuelon?
"Centro de Vuelo Bidasoa" bi plaza motako hegaldiak egiten ditugu, hau da, hegan egiten ez dakien jendea buelta bat ematera eramaten dugu. Hala ere, gure indargunea ikastaroak dira. 1983. urtetik hegan egiten ikasteko sistema bat martxan dugu, parapenteak eta delta hegalak erabiltzen ikasteko.

1983. urtean lanean hasi zinetenetik teknologia asko aldatu da gaur egun arte?
Bai, garai hartan parapenteak ez ziren existitzen eta Jorge Ibargoyen hasi zen honen guztiaren inguruan lanean. Orduan, delta hegalekin ibiltzen ziren bakarrik. 1992. urtean hasi ziren parapenteak erabiltzen eta orduan ikusi zen tramankulu hauek erabiltzen irakasteko sistema baten beharra zegoela. Beraz, hasieratik gaur egun arte gauzak asko aldatu dira, izan ere, motorrik gabe ia 600 kilometro hegan egitera iritsi zaitezke eta hori harrigarria da.

Zein da egun jendeak gehien eskatzen duen zerbitzua?
Gehien bat parapentea da, bere erosotasunarengatik. Azken finean, delta hegala trastu handia da eta azpiegitura bat beharrezkoa da materiala jaso eta mendira igotzeko.

Maila desberdinetako ikastaroak eskaintzen dituzue, ezta?
Hori da. Lehen mailako ikastaroak "Orange" deiturikoak dira eta era autonomikoan aireratzea, hegaldia eta lur-hartzeak egiten ikasten da horien bitartez. Maila aurreratuko ikastaroak, "Blue" deiturikoak, ikasleari mugimendu ezberdinak egiten erakusten diogu, ikaslea bere habiatik ateratzeko.

Zenbateko iraupena dute ikastaroek?
"Orange" eta "Blue" ikastaroek bi eta hiru hilabete arteko iraupena izan ohi dute. Hortaz, eskaintzarekin otsailean hasten gara eta azaroan amaitzen dugu. Bitarte horretan gurekin ibiltzen dira, hau da, egun batetik bestera ez diegu bakarrik ibiltzen uztean, pixkanaka egiten den prozesua da.

Jende askok horrelako opariak egiteko aprobetxatzen du?
Bai, opariak egiteko gehien erabiltzen den modalitatea bi lekukoena da. Izan ere, modalitate hori praktikatu ahal izateko ez da inolako esperientziarik behar eta denbora gutxi eskatzen duen zerbait da. Hortaz, iritsi, ekintza egin eta ez da besterik eskatzen.

Ikasleei erakusteko erabilitako teknologia eta metodologiak bereziak dira, zergatik?
Hegan egiten irakasteko guk geuk garatutako metodologia erabiltzen dugu, munduan bakarra dena. Orain gure asmoa metodologia hau beste komunitateetara zabaltzea da.

Edozeinen eskura dago hegan egiteko aukera?
Bi lagunentzako hegaldietan ez da inolako esperientziarik behar, bi gauza txiki eta erraz ikasi behar baitira bakarrik. Parapenteekin hegan egiten ikasteko denbora gehiago behar da, teknika konplikatuagoa baita.

Hegaldi eremu ezberdinetan ibiltzen zarete?
Bai, gehien bat, Peña Plata inguruan ibiltzen gara, Sara eta Zugarramurdi artean kokatutako mendi txiki batean, Espainia eta Frantzia arteko mugan kokatua. Hortaz gain, Orio aldean ibili ohi gara Kukuarri izenez ezagutzen den eremuan.

Euskal paisaiaz gozatzeko aukera ezin hobea izango da, ezta?
Bai, denok dakigu nolako paisai berdeaz inguraturik gauden eta edertasun hori airetik ikusi ahal izatea beste maila batean kokatzen zaitu.

Eguraldiak zeharo baldintzatutako kirola da?
Bai, hemen normalean ipar haizearekin ibiltzen gara, otsaila eta azaro artean eman ohi den haize motarekin. Lurra berotu egiten da eta gora botatzen duen aire bero hori itsasoko haizeak xurgatu eta iparra sartzen da. Beraz, hori izan ohi da hegan egiteko denboraldi onena.

Nola eragin dizue zuei COVID-19aren krisiak?
Bi lekuko hegaldiak turismoarekin loturik daude. Hala ere, aurten ikastaroetan jende gehiagok izena eman duela ikusi dugu, jendeak hemen ekintzak egiteko gogoak dauzkala nabaritu baitugu.

Nola ikusten duzue etorkizuna zerumugan?
Azken urte hauetan mundu mailako txapelketa asko antolatu direla ikusi dugu eta horrek jendea kirol honetara gehiago hurbiltzea eragin duela ikusi dugu. Hortaz gain, egun mendi bat hegan egiten jaisteko 2 kiloko ekipoak dauzkagu, normalean mendira hegan egitera doan jendeak pisu gehiago eraman ohi duen bitartean. Horrek, edozein mendira igo eta hegan egiten jaisteko aukera ematen du, jende gehiago erakarriz.

Soilik eskuak erabiliz bideo-jokoetara jolasteko aukera hurbilago dago Miru Studioren lanari esker

Argazkiak: Estudio Gover

“Finger Gun” errealitate birtualaren bitartez eskuekin jolasteko helburuarekin sortutako bideo-jokoa da. Garapen fasean egon arren, Miru Studioko Manex Darceles eta Eneko Barandiaranek jolasaren sorreraren gakoak azaldu dituzte.

Noiz hasi zineten bideo-jokoen sorreran lanean?
Manex: Txikitatik bideo-jokoekin jolasteko grina izan dugu. Ikasketak aukeratzerako orduan ez genuen pentsatzen mundu honetan sartzea, baina, nola edo hala hau egiten amaitu dugu. Duela sei hilabete hasi ginen lehen bideo-jokoa lantzen, “Finger Gun” izenekoa eta errealitate birtualeko betaurrekoen bitartez, beste mundu batean sartzen zara.

Zergatik erabaki zenuten zuen estudio propioa sortzea?
Manex: Biok betidanik ekintzailetzarekiko joera genuela uste dut, beti gure ideiak aurrera eraman nahi ditugulako, hori nola egin genezakeen jakin ez arren. Kasualitatez bidean pertsona batzuk ezagutu genituen eta ordutik asko ikasi dugu.

Eneko: Ikasten genbiltzan bitartean proiekturen bat garatzen ahalegindu ginen, baina, ni Madrilen eta bera hemen gelditu zenez, konplikatua izan zen. Ikasketak amaitu bezain laster martxan jarri ginen.

Zertan datza “Finger Gun” jolasa?
Manex: “Finger Gun” kontzeptu bat da. Errealitate birtualeko jolasak egiten hasi ginen “hand-tracking”-a garatzeko aukera ikusi genuenean. “Hand-traking”-ak errealitate birtualeko betaurrekoak erabiliz esku eta behatzen mugimendua detektatzen du, horrela, mundu birtualean zure eskuak ikusi eta erabiltzeko aukera ematen dizu. Aukera handiak zeuzkan zerbait zela iruditu zitzaigun. Txikitan denok jolastu dugu eskuak pistolak balira bezala eta hortik dator jolasa. Joko erakargarria da, “low poly” estetika atseginean oinarritu garelako bere sorrerarako eta “Westerm” motakoa izan arren, nahiko alaia dela esan genezake.

Eneko: Oso joko berezia da. “Hand-traking”-aren inguruko teknologia guztia nahiko berria da eta orain dela gutxi merkatuan dauden jolasak eskuekin jolasteko aukera hori eskaintzen hasi dira. “Finger Gun” jolasa zuzenean eskuekin jolasteko sortua izan da, nahiz eta mandoekin jolasteko aukera ere eskaini.

Proiektua garatzeko aurrerapauso teknologikoak gertutik jarraitu behar dituzue?
Manex: Beti zailtasunak egon arren, gure kasuan, merkatua zein proiektua oso berriak dira, beraz, hori erronka handi bat suposatzen du estudio txiki batentzat. Edozein aldaketa txikik proiektua hankaz-gora utzi dezakeelako, nahiz eta oraindik halakorik ez gertatu.

Nola bururatu zitzaizuen proiektua finantzatzeko diru-bilketa hastea?
Manex: Ideia azken urteetan “Kickstarter” eta “Crowfounding” hitzak asko entzuten direlako bururatu zitzaigun. Ideia argi izan bezain laster bururatu zitzaigun, ordura arte egindako lanaren ostean, proiektuaren azken fasea finantzatu ahal izateko.

Eneko: Finantziazioaz gain. “”Kickstarter” bitartez gure proiektua ezagutarazteko aukera izan dugu eta errealitate birtualean espezializatutako ia komunikabide guztietan agertzeko aukera eman digu.

Nolako arrakasta izan du orain arte diru-bilketak?
Manex: Momentuz, hamar egunetan proiektuaren heren bat finantzatzea lortu dugu, bilketa 30 egunetan egi-

“Hamar egunetan proiektuaren heren bat finantzatzea lortu dugu”
Manex Darceles, “Finger Gun” jolasaren sortzailea

“Finger Gun jolasa zuzenean eskuekin jolasteko sortua izan da”
Eneko Barandiaran, “Finger Gun” jolasaren sortzailea

tea aurreikusita baitago, hortaz, printzipioz ondo goaz. Datozen asteetan zehar “demo” bat ateratzeko asmoa dugu eta horrek ere ekarpenak laguntzea espero dugu.

Eneko: Jende eszeptiko asko dago, merkatuan ondo funtzionatzen ez duten aplikazio asko daudelako. Programatzen hasi ginen unetik gauzak ondo egiteko aukera zegoela ikusi genuen. Orain proba prestatzen ari gara proiektuan itxaropenik ez dutenei benetan funtzionatzen duela erakusteko.

Etorkizun hurbilean errealitate birtualeko jolasetara beste gorputz-atalekin jolastea posible izango dela uste duzue?
Manex: Egia esan, eskuekin jolastearen desabantaila nagusia eszenan desplazatzeko zailtasuna da. Horregatik, oinak erabiliz eta eserita egonda jolasean mugitu ahal izateko aukera ezberdinak aztertzen ari gara.

Osasun krisialdiaren ondorioz, proiektua garatzeko zenbait zailtasun topatu dituzue bidean?
Eneko: Kasualitatez, estatuan alarma egoera ezarri baino astebete lehenago erabaki genuen gure proiektuarekin hastea. Gauzak horrela, hasiera nahiko konplikatua izan zen eta oztopo asko aurkitu genituen bidean. Dena dela, gustuko duguna argi dugu eta erronka onartzea erabaki dugu, ikasiz bidean aurkitutako oztopoak gainditzeko.

Eskualdean sektorean Etorki Games bezalako enpresak dauzkagu. Kolaborazioak sortzeko aukerarik ikusten duzue?
Manex: Gu hitz egiteko prest gaude eta inguruan horrelako enpresak izatea oso aberasgarria dela iruditzen zaigu. Oraintxe bertan gu geure proiektuaren garapenean oso zentratuta gaude eta “Finger Gun” jolasa aurrera ateratzea lortu nahi dugu. Hala ere, etorkizunean proiektu berriak entzun eta elkarlanean aritzeko prest gaude.

Zeintzuk dira “Finger Gun” proiektuaren garapenean eman beharreko hurrengo pausoak?
Manex: Kickstarterra amaituta lortuta diru kopurua aztertu beharko dugu, proiektua finantzatzeko diru haina lortu ote dugun ikusteko. Hala izan ez bada, “Finger Gun”-en azken fasea aurrera ateratzeko bestelako bideak bilatzen hasi beharko gara. Gutxienez, hurrengo urratsak zeintzuk izango diren nahiko argi dugu.

Irungo La Salle LH4

Denbora-pasak

7 hitz: Lanbideak

I	N	E	I	P	T	E	D	J	E	G	B	R	M
T	C	I	J	H	W	S	F	H	L	Q	N	M	L
B	K	W	Q	M	D	A	N	T	Z	A	R	I	P
N	P	B	J	O	E	B	N	U	J	I	H	L	Z
N	P	Z	A	N	D	E	R	E	Ñ	O	I	O	C
D	W	G	A	R	B	I	T	Z	A	I	L	E	J
H	T	P	S	I	K	O	L	O	G	O	B	T	U
T	A	Y	T	G	C	E	F	G	E	C	R	L	A
W	B	Z	Z	Y	O	L	B	B	D	Q	Y	G	E
C	O	J	N	X	K	W	A	X	S	R	E	H	T
C	K	Z	I	T	U	R	G	I	N	W	Y	S	J
B	A	K	B	A	N	A	T	Z	A	I	L	E	A
U	T	G	O	K	X	R	N	K	K	S	M	M	L
G	U	E	S	L	E	Y	N	B	P	Y	F	Y	K

Andereño, iturgin, garbitzaile, abokatu, banatzaile, dantzari, psikologo

		5		9		8		3
		7	1					
		3					9	
		4		2	1	7		
1			4	5	9			2
	8					1		
5			9	1		2	4	6
6	9	1			4			
							1	

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

AIAKO HARRIARI

Doinua: Urki zelaiko puntan
Egilea: Urko Casado Usandizaga

1
Kantak jarriko ditut zure maitemiñez
sentimendurik hitzez azaldu eziñez.
Berdin du jazten zeran gris edo urdiñez,
hosto ugariz edo soineko ariñez,
ezin ederragoa nola zaren ziñez.

2
Bat edo hiru zaren askoren zalantza,
"K" batek karteletan dabilkien dantza!!
Toponimia du sarri hizkuntzak ardatza,
udalean zenbaitek ez dakite antza,
eta errespetua horretantxe datza.
3
Hurbiltzeko parada nola sarri dedan,
zenbat denbora pasa ote det zuregan
zentzu guztiak erne (e)ta burua hegan,
denbora ere gelditu egiten ote dan...
zure parte izaterik bagenu aukeran!
4
Haseran tontorretan zen nire arreta,
Txurrumurru, Erroilbide, Hirumugarrieta,
eta sartalderantza daukazun pareta.
Ondoren baso, magal, zoko (e) ta erreka,
Zenbat sorpresa dezu neretzat gordeta?
5
Landaredia dezu benetan anitza,
Pago, txilar, astigar, iñar nahiz haritza,
zumar, gaztainondo, haltza, urki ta hurritza,
gorosti, lizar, ametz, sahats zein zumitza,
gai zera edonondik sortzeko bizitza.
6
Orkatza, azeria, xagua, azkonarra,
arrabioa, igela, trikua, muxarra,
muskerra, sugandila, saia, xaguzarra...
Pertsonok ez genuke onartzea txarra
haiek soilik dutela zurekin beharra.
7
Berez duzun oreka pertsonok irauli,
errespetorik gabe hainbeste ahali.
Ardi, behi edo behor mendira bidali,
zuregan bizi arren, nahiz askok estali,
abere bakoitzeko mila animali.
8
Etzarenez osatzen soilik lur publikoz,
lehenengo jo zintuen pinuak ostikoz.
Pertsonon mixerian dirua beti poz!!
ia etzaituzten janzten inoiz eukalitoz,
zuhaizti (e)ta basoak betirako itoz.
9
Beti ez dut erdi hutsa ikusten botila,
lau jantzirekin dabil zuregan okila.
Aurten hurbildu zaizu sekulako pila,
pinu lehorretara alimentu bila,
bizitzaz betetzeko txulo borobila.
10
Kantak jarri dizkizut Aiako Harria,
gutxi den bezain leku liluragarria.
Artzain-basozain biko maiz kontrajarria,
elkarlanerako da nere aldarria,
bakarra izanki lotzen gaitu(e)n uztarria

San Vicente de Paul LH6



Irunen, 2019ko Abenduaren 12a

Kaixo Ama:

Eskuiz hau dozten diat handitzen

ari naizelako eta batzueten faltan botaten zaitudalako.

Ni, zurekin ez nagonean, batzutik, histe nago. Konpontik, saiatzen

naiz, besteek ni pozik ikusteko. Ez dudalako nahi tristura par-

tekatzea bestekin.

Goiz guztiak, zu ikustean, oso pozik

jartzen naiz. Baina nik uste dut lanpetuta zaudela eta ezin

duela denbora asko nirekin egon. Horregatik, denbora asko nago

amonarekin.

Gauza gehiena gustatzen zaidana,

asteburuetan zurekin egotea da. Baina oraindik, handitu naizela, ufer-

tu dut hiru arrai-arreba gordeta eta hirurek zaindu behar gaituela

Gustatuko litzaidake, zu, festa

gehiago izatea, eta horrela, zurekin gehiago egoteko aukera

izango nuke.

Musu bat! Asko maite zaitut! ♡

Ama, hobeena zara!

German Eizagirre, gazte irundar euskalduna:

“Euskaraldia bezalako ekimenak oso beharrezkoak dira”



German Eizagirre irundarra eta euskalduna da jaiotzez. Bioteknologia eta ingeniaritza informatikoko ikasketak egiteko Tarragonara bizitzera joan zen eta 34 ohorezko matrikula lortu zituen bertan. Bizitokiz aldatu arren, argi eta garbi du euskararekiko lotura mantentzeko ahalegin guztiak egingo dituela, horrela, irakaskuntza eta ikerkuntza euskararekin uztartuz.

Nola deskribatuko zenuke euskararekiko duzun harremana?

Zortea daukadala esango nuke, aita oso euskalduna daukat eta txikitatik ama etxean Belarriprest rolean aritu dela esan dezakegu, beraz, txikitatik bi hizkuntzen inguruan ibiltzeko zortea izan dut. Gainera, aita zarauztarra denez, Irun zein Zarautzeko euskararen erabilera maila ezberdinak ezagutu ditut eta euskara nire bizitzaren parte garrantzitsu bat da.

Unibertsitate ikasketak euskal eremutik kanpo egin arren, euskararekiko harremana galdu duzu?

Betidanik ikasketak D ereduan egin ditut bai Toki Alaien zein Donostiako Santo Tomas lizeoan. Unibertsitate ikasketak aukeratzerakoan nire gradu bikoitza Tarragonan soilik eskaintzen zenez bertara joan behar izan nintzen.

Erraza da kanpoan egonda euskararekiko lotura mantentzea?

Bai, Irungo koadrilan gutxitan hitz egiten dugu euskaraz. Tarragonan euskal herriko beste neska-mutil batzuk ezagutu nituen eta talde txiki hartan gure artean euskaraz hitz egiteko ohitura hartu genuen. Hala ere, aitarekin telefonoz edo Zarautz eta Aiako senideekin euskaraz komunikatzen naiz.

Katalunian bizita, euskara eta kantalaren egoeran antzekotasunik ikusten duzu?

Desberdina da, erdaldun batentzat errazagoa da katalana ikastea euskara ikastea baino, hizkuntzen arteko antzekotasunagatik. Kanpotarrek bertan katalana hitz egiteko beldur gutxiago dute, erdaraz abiatuta eta hitz batzuk ezagututa moldatu zaitezkeelako. Hortaz, euskararen erabilera kanpotarrengan integratzea zailagoa da. Katalunian unibertsitatean irakasleek katalanez egiten dizute eta lagun katalan batzuk eginez gero, segituan katalanez hitz batzuk esatera ausartuko zara, naiz eta hizkuntzaren erabilera guztiz zuzena ez egin.

Bioteknologia eta ingeniaritza informatika ikasketak dauzkazu. Arlo horietan ohikoa da euskararen erabilera?

Bai, nire asmoa doktoretza egitea da eta ikerketaren bidetik jarraitzea. Egia esateko, inoiz ez dut euskara zientziaren munduan ikusi. Dibulgazioan bai, baina, ez zientziaren lanketa zuzenean. Hala ere, zientzian euskara ikusten ez den bezala, gaztelera ere oso gutxi erabiltzen da. Zientzia arloan lan gehienak ingelesez edo txineraz egiten dira. Adibidez, zientzia arloan publikazioren bat ingelesa ez den hizkuntza batean egiten duzunean, publikatutako lanari garrantzia kentzen ari diozula dirudi.

“Euskara nire bizitzaren parte garrantzitsu bat da”

Etorkizunean euskal eremuan ikusten duzu zure burua lanean?

Nire nahia etorkizunean unibertsitate batean ikasle postua izatea da. Horrela, unibertsitate mailako irakaskuntza ikerketarekin uztartzea gustatuko litzaidake. Euskal Herriko unibertsitatean lana topatuko banu izugarri pozik egongo nintzateke. Dena dela, postua beste edozein unibertsitatean topatuko banu pozik egongo nintzateke ere, beraz, zentzu horretan, edonolako aukerak aprobetxatzeko irekita nago. Argi daukat lana edonon lortu arren, euskararekiko lotura mantentzen jarraituko dudala, hau da, koadrila, lagun edo senideen bitartez, orain arte egin dudan bezala.

Euskaraldia bezalako ekimenak baliagarriak dira zure ustez?

Euskaraldia bezalako ekimenak oso beharrezkoak dira. Izan ere, batzuetan gertan daiteke, koadrilakoren bati bururatzea egun batzuetan zehar soilik euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzea. Horrelako asmoak, sentimendua tartean egon arren, bi egunen buruan ahaztu egiten dira, beraz, azken finean, ez da hain praktikoa. Euskaraldia bezalako ekimenen bitartez, ordea, honelako helburuak denboran luzatzea eta mantentzea errazagoa da. Denbora epeak markatuagoak daude eta helmuga ikusten duzu, ondorioz, gehiago inplikatzen zara. Dena den, txipa aldatzea eta beste askotan euskaraz hitz egiteko erritmoa hartu behar da. Era honetan, besteekiko harremanetan ohiturak aldatzeaz gain, gure euskararen erabileraz gogoeta egingo dugu eta gure jarrera aldatzeko gai izango gara.

Auzolandegiak 2021. Proiektuak aurkeztea

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2021. urteko ediziorako proiektuak aurkeztea.

Programan parte hartu nahi duten erakundeek edozein tipologia edo modalitatetako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte, boluntarioek auzolandegietan egin beharreko lan-arloari dagokionez (ingurumena, arkeologia, berreraikitzea, gizarte-lana, antzerkia, artea, ondarea berreskuratzea...).

Kontuan hartu beharko dute auzolandegien xedea dela hainbat jatorri eta kulturatako gazteen arteko elkarbizitza eta kultura-trukea bultzatzea, auzolandegia hartuko duen komunitatearen onerako izango den boluntario-lanaren bidez, hau da, ondasun edo zerbitzu publiko izango den gizarte proiekzioko lan baten bidez. Auzolandegiak, ahal dela, uztailean eta abuztuan egingo dira.

Epea: 2021eko urtarrilaren 15ean.

Ikastaroa: Hez zaitez Formatzeko!

Ikastaroa: Enplegurako prestakuntza emateko irakaskuntza (Profesionaltasun ziurtagiria)

Norentzat?: Langabeentzat, hezkuntza sektoreko langileentzat, aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen pean dauden pertsonentzat, beren konturako langileentzat (autonomoentzat).

Ezinbestean bete beharreko eskakizuna: Batxilergoa edo 3. mailako profesionaltasun ziurtagiria

Hasiera data: Abenduaren 4a.

Egunak eta orduak:
- Ostegunak, 17:00-20:00
- Ostiralak, 15:30-20:30
- Larunbatak, 08:00-14:30

Iraupena: 340 ordu teoriko eta 40 ordu praktiko.

Lekua: Mendibil Prestakuntza Zentroa.

Dohainik! Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak %100ean finantzatua.

Gazteen Europako Atari berria

Gazteen Europako Ataria berritu egin da, gazteentzako Europako aukera guztiak eta informazio garrantzitsua eskaintzeko.

Leihatila bakarra izango da Erasmus+ programa, DiscoverEU, Europako Elkartasun Kidegoa, EBren Gazteentzako Estrategia eta EBren eta Gazteriaren arteko Elkarrizketa ezagutzeko.

Gainera, beste herrialde batean ikasteko aukera eskainiko du, praktikak egiteko, boluntariotzan parte hartzeko aukerei buruzko informazioa lortzeko, ekitaldi interesgarriak aurkitzeko eta beste zenbait gauza egin ahal izateko aukera emateaz gainera.

POSTETXEAK lan-kontratu finkoko 3.381 lanpostutan izena emateko epea ireki du

Eginkizunak: bidalketen banaketa, zeregin logistikoak eta bezeroen arreta bulegoetan...

Lan-postuak probintzia guztietan.

Inskripzioak: www.correos.com webgune korporatiboaren bidez.

Izena emateko epea: abenduak 2, 23:59 arte.



Abenduak

1

Helduentzako antzerkia: Zoaz Pake Santuan

Zer: Bi dira antzerkiko pertsonaiak, senar-emazteak, eta daraman bikote bizimodu aspergarriarekin amaitzeko, Andreak (emazteak), zirt edo zart, gizona pozoitzea erabaki du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Librea, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak eskuratzeko: Luis Marianoko Turismo Bulegoan edo Amaia KZan ikuskizuna hasi baino 15 minutu lehenago arte.

Ekoizlea: Txalo produkzioak.

3

Euskararen Nazioarteko Eguna

Zer: "... Nahi dugu hitz eta jolas" bertso saioa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Librea, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak eskuratzeko: Luis Marianoko Turismo Bulegoan edo Amaia KZan ikuskizuna baino 15 minutu lehenago arte.

Bertsolariak: Ainhoa Bartra eta Julio Soto.

Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

5

Laburbira

Zer: Euskarazko film laburren XVII. zirkuitoa.

Non: Amaia Kultur Zentroko hitzaldi aretoan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Librea, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak eskuratzeko: Emailez mezu bat idatzi behar da euskara@irun.org posta kontura Izen-abizenak eta "LABURBIRA" zehaztuz.

6

Antzerkia

Zer: "Dos tablas y una pasión" antzerkia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 14,90euro eta 9,60euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo turismo bulegoan edo Amaia Kultur Zentroaren leihatilan ikuskizunaren egun berean.

11

Gorria

Zer: Askoa Etxeberria "La Pulga" eta Miren Amuriza.

Non: Oiasso erromatar museoan.

Ordua: 19:30etan.

Telefonoa: 943 639 353.

Sarrerak: Oiasso Erromatar museoan jaso ahal izango dira abenduaren 11ko 10:00etatik aurrera.

15era arte

Jostailu bilketa

Zer: Gurutze Gorriak antolatutako 0-17 urte bitarteko haurrentzako jostailu berrien bilketa, haurren artean bereizketarik ez sortzeko.

Non: Irungo Gurutze Gorrian, Euskal Herria Hiribideko 14-16 zenbakian.

Bilketa ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:00etara eta astelehenak eta asteazkenetan ere 17:00etatik 20:00ak arte.

Diru ekarpenak: BIZUM aplikazioaren bitartez egin ahalko dira. Aplikazioa deskargatu, bidali eta dirua eskatu Bizumarekin aukeratu eta "Eman" aukeratu. 01376 Kodea sartu. Hau eginda "Gipuzkoako Gurutze Gorria" agertuko da. Hau hautatuta, ipini eman nahi den zenbatekoa.

Oharra: Jostailu berriak, ez belikoak eta ez sexistak ematea eskatzen da.

Denbora-pasen emaitzak

I	N	E	I	P	T	E	D	J	E	G	B	R	M
T	C	I	J	H	W	S	F	H	L	Q	N	M	L
B	K	W	Q	M	D	A	N	T	Z	A	R	I	P
N	P	B	J	O	E	B	N	U	J	I	H	L	Z
N	P	Z	A	N	D	E	R	E	Ñ	O	I	O	C
D	W	G	A	R	B	I	T	Z	A	I	L	E	J
H	T	P	S	I	K	O	L	O	G	O	B	T	U
T	A	Y	T	G	C	E	F	G	E	C	R	L	A
W	B	Z	Z	Y	O	L	B	B	D	Q	Y	G	E
C	O	J	N	X	K	W	A	X	S	R	E	H	T
C	K	Z	I	T	U	R	G	I	N	W	Y	S	J
B	A	K	B	A	N	A	T	Z	A	I	L	E	A
U	T	G	O	K	X	R	N	K	K	S	M	M	L
G	U	E	S	L	E	Y	N	B	P	Y	F	Y	K

4	1	5	6	9	2	8	7	3
9	6	7	1	3	8	4	2	5
8	2	3	7	4	5	6	9	1
3	5	4	8	2	1	7	6	9
1	7	6	4	5	9	3	8	2
2	8	9	3	7	6	1	5	4
5	3	8	9	1	7	2	4	6
6	9	1	2	8	4	5	3	7
7	4	2	5	6	3	9	1	8

INDARKERIA MATXISTAREN
AURREAN
EZ
ZAITEZ
IKUSLE
HUTS
BAT
IZAN
ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.
NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus
Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa
ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro